

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Gordexolako Udala**

Gizarte Segurantzako Langile Autonomoen Araubide Berezian izena emanda dauden eta txikizkako merkataritzan, ostalaritzan edo zerbitzuetan jarduten duten pertsonen laguntzak emateko oinarriak. Koronabirusaren (COVID-19) pandemiak eragindako krisi ekonomikoaren aurrean.

Laguntza horien helburua da koronabirusaren (COVID-19) bilakaeraren ondoriozko egoerak arintzea, Gordexolako udalerrian jarduera eten behar izan duten txikizkako merkataritza-establezimenduetan, ostalaritza-establezimenduetan eta langile autonomoek zuzentzen dituzten zerbitzuetan.

Posible den neurrian, udal baliabideak herritarrei erantzun egoki eta azkarra emateko erabiltzea. Udala herritarrengandik hurbilen dagoen erakundea izanik, xedea lehenengo laguntzak horren bitartez bideratzea da. Hori guztia, gainerako administrazioek dagoeneko arlo horretan hartu dituzten edo epe labur edo ertainean hartuko dituzten neurri eta erabakiak edozein izanik ere. Horretarako, aldizkakoak ez diren baliabide ekonomikoak emango dira.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak emandako eskumenez baliatuta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.k) artikuluan jasotako eskumenen arabera.

ERABAKI DUT:

1. COVID-19-ri lotutako presazko laguntzen oinarriak oneste, Gizarte Segurantzako Langile Autonomoen araubide berezian izena emanda dauden eta txikizkako merkataritzan, ostalaritzan edo zerbitzuetan jarduten duten pertsonen laguntzak emateko, koronabirusaren (COVID-19) pandemiaren ondoriozko krisi ekonomikoari aurre egite aldera.

Lehenengoa. — Jasotzaileak

Gizarte Segurantzako Langile Autonomoen Araubide Berezian izena emanda dauden pertsonak, Gordexolako jarduerari eskusiboki atxikitako lokala dutenak eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak eragindako jardueretako bat izateagatik itxi behar izan dutenak. Errege-dekretu horren bidez, COVID-19-k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zen.

Bigarrena. — Diruz lagunduko diren gastuak

- a) 200 euroko konpentsazioa lokaleko, jarduera eteteagatik.
- b) Negozio-lokala alokatzeagatik gastuak.
- c) Negozio-lokala erosteagatik hipoteka-gastuak.
- d) Gizarte Segurantzako kuotak.
- e) Jarduerarako beharrezkoak diren ondasunen errentamendu- eta leasing-gastuak.
- f) Jarduerari lotutako elektrizitate-, ur- eta zabor-gastuak.
- g) Jardueraren garapen segururako egokitzearen ondoriozko gastuak (manparak instalatzea,...).
- h) Jarduerari dabzekion beste gastu batzuk (aseguruak, aholkularitza-zerbitzua, mantentze-lanak,...).

Gastuak Alarma Egoera deklaratu duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretutik aurrerako aldiaren sortutakoak izan behar dira, harik eta jarduerari berriro ekin ahal izan arte, administrazio eskudunak hala onartzen duenean, salbu eta lokalak jardueraren



garapen segururako egokitzearen ondoriozko gastuak, horiek barne hartu ahal izango baitira sortutako eta justifikazio-datarara arte ordaindutako gastuak.

Hirugarrena.— Diru-laguntzaren zenbatekoa

Diru-laguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira, eskabidea ebatzi ondoren. Diru-laguntzaren ordainketa konturako entregatutako joko da. Eskatzaile bakoitzak gehienez 1.000 euroko diru-laguntza jaso dezake kontzeptu guztiengatik.

Eskabide bakoitzeko eskatzaile bakoitzari aurreratuko zaion kopurua gehienez 1.000 eurokoa izango da eta ordainketa bakarra izango da.

Merkataritza- edo ostalaritza-establezimendu bakoitzeko diru-laguntza bakarra emango da, bertan lanean ari den pertsona autonomo kopurua gora behera.

Laugarrena.— Laguntzen instrukzioa, proposamena eta ebazpena

Alkatetzak izendatutako funtzionarioak baloratu eta aztertuko ditu garaiz eta behar bezala aurkeztutako eskabideak.

Proposatutako txostena egin ondoren, Alkatetzak izango du ebazteko eskumena, izan ere, laguntza horietarako diru-laguntzak emateko eskumena berreskuratuko du.

Prozeduraren ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Instrukzioa egiteko, ebazteko eta jakinarazteko epea gehienez 15 egun naturalekoa izango da.

Laguntza-lerro hau bateragarria izango da beste administrazio publiko batzuek abian jar ditzaketan laguntzekin, baldin eta jasotako laguntza COVID-19tik eratorritako kalteen zenbatekoa baino handiagoa ez bada. Hala badagokio, martxan jarriko da 38/2003 Diru-laguntzen araudian aurreikusitako itzulera-prozedura.

Emandako diru-laguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da, onuradunak adierazitako kontu korrantean.

Bosgarrena.— Agiriak eta eskabideak aurkezteko epea

1. Honako agiri hauek aurkeztu behar dira:
 - Eskabide ereduak, Udalaren web orrian eskuratu daiteke.
 - Zinpeko aitortpena, jarduera Gordexola udalerriko lokal batean egiten dela jasotzen duena.
 - Justifikazio-agiria, 2020ko urtarrilean eta otsailean autonomoen kuota ordaindu izana egiaztatzen duena.
 - Zinpeko aitortpena, lokala itxita dagoela dioena, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak eragindako jardueretako bat izateagatik; errege-dekretu horren bidez, alarma-egoera aitortzen da COVID-19-k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko.
 - Telefono, elektrizitate, ur eta abarren ordainagiri baten kopia. Bertan, eskatzailearen izena eta ordainketak egiteko kontu-zenbakia agertu behar dira.
 - Eskabideak aurkezteko epea. Eskabideak deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hamar egun balioduneko epean aurkeztu ahal izango dira.
2. Aurkezteko bidea:
 - a) Gordexolako Udalaren egoitza elektronikoaren erregistro elektronikoan "Instantzia Orokorraren Eskakera" ereduaren bitartez: <http://www.gordexola.eus/eu-ES/Izapideak/Orrialdeak/default.aspx>, dokumentazio gisa erantsi Gordexolako autonomoie zuzendutako diru-laguntza eskabidea.
 - b) Salbuespen gisa, eskabideak posta elektronikoz onartuko dira, honako helbide honetara bidalita: udala@gordexola.eus



- c) Udaletxean aurrez aurre, aurretik hitzordua eskatu ondoren. Hitzordua email bidez (udala@gordexola.eus) edo telefonoz eskatuko da. Hitzordua eskatzeko epea bost egun baliodunekoa da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Seigarrena. — Zuriketa

Hiru hilabeteko epean, alarma-egoeraren adierazpena amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo, nolana ere, diru-laguntza eman zaiela jakinarazi eta sei hilabetera, eskatzaileek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adierazita.
2. Gastua justifikatzen duten jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak (edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten dokumentuak edo eraginkortasun administratiboa dutenak); horiek diru-laguntza eman den aldiko data izan beharko dute. Dokumentu horiek argi eta garbi adierazi beharko dituzte, gutxienez, honako datu hauek: jaulkitzailea (izena edo izen soziala eta NAN edo IFZ adierazita), hartzailea (izena edo izen soziala eta NAN edo IFZ adierazita), gastuaren xedea eta prezioa BEZarekin (barne edo kanpoan) eta PFEZaren atxikipena, hala badagokio.
3. Fakturak (edo beste dokumentu batzuk, merkataritzako trafiko juridikoan pareko froga-balioa dutenak edo eraginkortasun administratiboa dutenak) ordaindu izanaren ziurtagiriak. Azalpen-oharra: transferentziaren egiaztageria, fakturan bertan ordainduta dagoela agertzea, edo fakturazaillearen ziurtagiria.
4. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntza batzuen zerrenda zehatza, zenbatekoa eta jatorria adierazita.
5. Hala badagokio, itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko geldikinen kasuan, baita horietatik eratorritako interesak ere.

Zazpigarrena. — Administrazioak aurkeztutako agiriak berrikusteko eta ikuskatzeko duen eskubidea

Gordexolako Udalak diru-laguntzaren onuradunak zinpeko adierazpenean jasotzen dituen datuak egiazkoak direla egiaztatzeko eskubidea du. Horretarako, Gordexolako Udalak dokumentazio gehigarria eskatu ahal izango du prozeduraren edozein unetan. Onuradunek ez badute eskatutako dokumentazioa aurkezten, prozeduran atzera egin dutela ulertuko da, eta, hala badagokio, jasotako diru-laguntza itzuli beharko dute.

Zortzigarrena. — Aplikatu beharreko araudia

Oinarri arautzaileetan xedatutakoaz gain, diru-laguntzak honakoek arautuko dituzte: Gordexolako Udalak deialdi bidez Udal diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen duen Ordenantzak (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2018ko maiatzaren 30ekoa) eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hori garatzen duen araudiek.

Gordexolan, 2020ko maiatzaren 12an. — Alkatea, Ángela María Eguía Liñero



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Gordexolako Udala**

Koronabirusaren (COVID-19) pandemiak erangindako krisi ekonomikoaren aurrean, Gizarte Segurantzako langile autonomoen araubide berezian izena emanda dauden eta txikizkako merkataritzan, ostalaritzan edo zerbitzuetan jarduten duten pertsonen laguntzak emateko presazko deialdia. BDNS (Identif.): 505726.

106/2020 Dekretuaren bidez koronabirusaren (COVID-19) pandemiak erangindako krisi ekonomikoaren aurrean, Gizarte Segurantzako langile autonomoen araubide berezian izena emanda dauden eta txikizkako merkataritzan, ostalaritzan edo zerbitzuetan jarduten duten pertsonen laguntzak emateko presazko deialdiaren oinarriak onartu dira.

Hori dela eta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.s) artikulua emandako eskumenen arabera

ERABAKI DUT:

Lehenengoa: Gizarte Segurantzako Langile Autonomoen Araubide Berezian inskribatuta dauden eta txikizkako merkataritzarako, ostalaritzarako eta zerbitzuetarako lokalan jarduten duten pertsonen diru-laguntzak emateko hurrengo deialdia onartzea, koronabirusaren (COVID-19) bilakaeraren ondoriozko egoerak arintzeko.

Bigarrena: Agiriak eta eskabideak aurkezteko epea.

1. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hamar egun balioduneko epean aurkeztu ahal izango dira.

2. Aurkeztu beharreko agiriak:

– Eskabide ereduak, Udalaren web orrian eskuratu daiteke.

– Zinpeko aitortpena, jarduera Gordexola udalerriko lokal batean egiten dela jasotzen duena.

– Justifikazio-agiria, 2020ko urtarrilean eta otsailean autonomoen kuota ordaindu izana egiaztatzen duena.

– Zinpeko aitortpena, lokala itxita dagoela dioena, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak eragindako jardueretako bat izateagatik; errege-dekretu horren bidez, alarma-egoera aitortzen da COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko.

– Telefono, elektrizitate, ur eta abarren ordainagiri baten kopia. Bertan, eskatzailearen izena eta ordainketak egiteko kontu-zenbakia agertu behar dira.

3. Aurkezteko bidea:

– Gordexolako Udalaren egoitza elektronikoaren erregistro elektronikoan «Instantzia Orokorraren Eskakera» ereduaren bitartez: <http://www.gordexola.eus/eu-ES/lzapideak/Orrialdeak/default.aspx>, dokumentazio gisa erantsi Gordexolako autonomoen zuzendutako diru-laguntza eskabidea.

– Salbuespen gisa, eskabideak posta elektronikoz onartuko dira, honako helbide honetara bidalita: udala@gordexola.eus

– Udaletxean aurrez aurre, aurretik hitzordua eskatu ondoren. Hitzordua email bidez (udala@gordexola.eus) edo telefonoz eskatuko da. Hitzordua eskatze epea bost egun balioduneko da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena: Udal aurrekontuan 20.000 euroko gastua baimentzea, Gordexolako Udalaren aurrekontu-ezarpen honen arabera:

– 4390 47100 Partida Diru-laguntzak COVID-19 laguntzak.



Laugarrena: Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea, Diru-laguntzen Base Nazionalaren bitartez. Deialdiak eraginkortasun juridikoa izateko, aurretik oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dira.

Bosgarrena: Deialdi hau arautzen duten oinarriak 106/2020 Alkatetza Dekretuaren bidez onartu dira, eta deialdi honetan aurreikusi ez denari dagokionez, oinarri hauek arautuko dute.

Seigarrena: Egiten den hurrengo osoko bilkuran Udaltzari honen berri ematea.
Gordexolan, 2020ko maiatzaren 8an.—Alkatea, Ángela María Eguía Liñero